



**HASIERA ZAILAK.** Lehen urteetan, Iruñeko Udal Ikastolako haurrek ehunka mobilizaziotan parte hartu behar izan zuten, egoera eskasenetan eskolaturik zeuden eta.

Asier Azpilikueta | IRUÑEA

**B**arkamena eskatu nahi diet neure alabei, pairatu behar izan zuten guztiagatik». Ahotsa dardar batean, ia negarretan, Gotzone Isiegasek —Iruñeko Udal Ikastolako bultzatzailetako batek— barrubarruko sentimendu bat azalerratu zuen iragan asteko ostegunean, ikastolaren 25. urteurrenaren karietara eginiko mahai inguruan. Txalo zaparrada beroa jaso zuen trukean.

Iruñeko Udal Ikastola 145 haurrekin hasi zen, 1979ko urtarrilaren 9an, Txantreako Kanostarren ikastetxe zaharrean. Baziren Iruñean bi ikastola pribatu, San Fermin eta Paz de Ziganada. Baina Isiegasek gogoratu zuenez, «haur anitz kanpoan gelditzen zen, eta bertze batzuek ez zituzten kuotak ordain-

tzen ahal». Horregatik, seme-alabei kalitatezko hezkuntza publikoa eta aurrerakoia euskaraz eman nahi zieten hainbat guraso udal ikastola sortzeko lanetan hasi ziren.

Frankismo garaiko azken Udalerako jo zuten. Eta han, Miguel Javier Urmeneta, Jesus Velasco, Manolo Perez Balda eta Miguel Angel Muez alkate

eta zinegotziek bere egin zuten gurasoen eskaera, eta barnetik presioa egin zuten egitasmoa gauza zedin.

Ez zen erraza izan, ordea. Ikastolaren bultzatzaileek ehunka bilera, manifestazio, itxialdi eta protesta ekitaldi egin behar izan baitzituzten.

Halako batean, frankismo osteko lehen hauteskundeetan,

PSOEk, txiripaz edo, alkatetza eskuratu zuen. Camino Osle orduko zinegotzi sozialistak mahai inguruan aitortu zuenez, ikastolarekin «topo» egin zuen Baldur alkatearen taldeak, eta jada hasita zegoen proiektu bat finkatu behar izan zuten. Prozesu «nahasia» izan zen, Osleren hitzetan. Zintzo hitz egin zuen: «Ikastola etengabeko erronka

izan zen niretako. Ni alderdi jakin batean nengoen, eta jakina da nolako joera izan duen alderdi horrek gero. Baina, hala ere, bidezkoak ziren interes batzuen alde egin genuen».

#### Aurpegia margotuta eta deialdia eskuetan

Nondik begiratzen den, jakina. Ehunka borrokatan sartuak ziren gurasoek bertze begi batzuekin ikusten baitzuten Udala. Hastapenetik ikastolan dagoen Xabier Diaz Esarte irakasleak orduko txiste batekin laburbildu zuen hasierako hura: «Zertan bereizten dira ikastolako haurrak eta edozein eskola erdaldunetakoak? Bada, ikastolako haurrak aurpegia margotuta jaisten direla autobusetik. Eta zertan bereizten dira Udal Ikastolako haurrak eta edozein ikastolakoak? Bada, Udal Ikasto-

## Barkatzeko moduko ikastola publikoa

**IRUÑEKO UDAL IKASTOLAREN 25. URTEURRENA.** Nafarroako Gobernuaren eskuetara pasatuko da historia zaila izan duen ikastola

### AITOR ETXARTE HEGOALDE IKASTOLAKO ZUZENDARIA

## «Garai samin hura ezinbestekoa izan zen gaur egun garena gauzatzeko»

Kristina Berasain | IRUÑEA

Udal Ikastola sortu eta hilabete gutxitara hartu zuen Aitor Etxartek zuzendaritza. Sakon-ean ezagutu du hezkuntza proiektu honen funtsa, eta iraganeko, egungo eta etorkizuneko lanaren berri eman digu EGUNKARIArekin izan duen solasaldi honetan.

#### ■ 25 urteko ibilbidea osatu berri du ikastolak; nolakoa izan da bilakaera?

Bilakaera izugarria izan du ikastolak. Orain dela 25 urte imajina ezina zen gaur egun gauden tokira iristen ahal gina. Alde horretatik, oso pozgarria izan da 25 urte betetzea. Garai hartan ez zegoen legez-

ko beste aukerarik irakaskuntza publikoa eta euskalduna garatzeko, dena gaztelania hutsez zen eta. Horrela abiatu zen Udal Ikastola.

#### ■ Ildo horretan, Iruñeko Udalak eman zuen babesa bitxia izan zen, gaurko begiradarekin, bederen?

Garaian Iruñean zegoen testuinguruak ahalbidetu egin zuen gure proiektuak aurrera egitea. Udalean sentsibiltate ezberdineko zinegotziak zeuden eta, oro har, zentzudunak ziren; oso kudeaketa duina egin zuten. Ez Nafarroako Gobernuak eta ez Espainiako Ministerioak ez zuten gutaz ezer jakin nahi izan, eta Udalak gu legeztatzeke ausardia izan

zuen; horrek esan nahi izan zuen guztiarekin.

#### ■ Aurreneko urte horiek latzak izan ziren, ezta?

Oso egoera bortitzak izan genituen, nahiz eta haurrek ez zuten horrela bizi izan. Beti saiatu ginen, egoerarik txarretan ere, lasaitasuna eta alaitasuna transmititzen, eta horrek, zorionez, emaitza onak eman ditu. Dena den, ezinezkoa zirudien ekimen bat gauzatu den neurrian, asko jotzen dugu hasierako memento epiko eta heroiko horiek gogoratzea, eta, egia da, garai samin horiek ezinbestekoak izan zirela gaur egun garena gauzatzeko; baina egun dugun egoeran jarri behar dugu indarra.



JAGOBA MANTEROLA / ARGAZKI PRESS

#### ■ Azken urteotan sarritan hitz egin da Udal Ikastola Nafarroako Gobernuaren eskuetara pasatuko dela. Noiz gauzatuko da asmo hori?

Badirudi hurrengo ikasturterako emango dela pausoa; dena den, hori ez dago gure esku. Aspaldiko kontua da hori, eta hemen segitzen dugu.

### ETORKIZUNA

«Kezkatzen gaitu gure hezkuntza proiektuan parte hartzeko aukera ez izateak»

#### ■ Orain arte hezkuntza proiektuan parte hartzeko aukera zuzena izan duzue. Nafarroako Gobernuaren eskuetara pasatzeak aldaketa nabarmenak ekarriko ditu ildo horretan, ezta?

Hori da gure kezka handiena. 25 urte hauetan gure ezaugarri nagusia hezkuntza proiektua izan da, eta etorkizunean ere zaindu eta landu beharreko proiektua dela uste dugu. Eskola publikoarekin elkarkidetzat handia dugu, eta batera aritu behar dugu lanean, izan ere eguraldiak guztiontzat oso antzera joko du hemendik aurrera, txarrerako edo onerako.